

# Berrigara



## Gora San Martzial!



**Udako gauak:** jazza eta zinema kalean **Hitzarmena:** Santa Marinak udalari eman dio Kataibia



6 HILEBETERAKO  
UKIPEN-LENTEAK

**14.900**PTA.N  
**BAKARRIK**  
89,55€

**MULTIOPTICAS**

**LARRAÑAGA**

BERGARA • ARRASATE • ORDIZIA



3 hilabeteen ordaindu errekararik gabe  
[www.multiopticas.com](http://www.multiopticas.com)

## Multilens Pack Berria

**Eta gainera, bidai POLTSA BAT OPARI**

Multipackean hauek sartzen dira:

Hilean behin aldatzeko Multilens lenteen 2 kaxa, Multidisoluzio bakarreko edo Multibio Pluseko 2 pote eta lenteak gordetzeko 2 kutxatila.




Promoziok 01/08/31ra arte edo opariak bukatu arte iraungo du.

BAUSCH  
& LOMB

CIBA  
Vision  
A Novartis Company  
[www.cibavision.com](http://www.cibavision.com)

R.P.S. N° 16499



**Entzumen-arazoez isolatu egiten gaituzte**

Ondo entzutea ezinbestekoa da  
bizitzaz erabat gozatzeko



**MULTIOPTICAS**

**Zergatik uko egin  
ondo entzuteko  
aukerari?**



Entzumen-arazoentzat konponbideak aurkitzen ditugun Audioprotesista adituak gara, eta alde horretatik, premiarik baldin baduzu, irtenbiderik egokiena, erosoena eta diskretuena eskainiko dizugu.

**Uztailaren 2tik 6ra, bitartean, entzumenaren azterketa egingo diegu dohainik** eta inolako konpromisorik gabe hala egin nahi duten guztiei.

**ETA JASO EZAZU OPARI EDER BAT!**

**ESKA EZAZU HITZORDUA ALDEZ AURRETIK**



**GAES**

ENTZUMEN ZENTRUA

**BERGARA**

**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16

943 76 15 75





## San Martzialak

Martin Garitano, kazetaria

**B**ergararrontzat San Martzialgo erromeriak esanahi berezia du. Beste jaiak ere beti gustukoak izan ditudan arren, San Martzial eguna ilusio berezi batekin bizi izan dut gazte-gaztetatik.

Txikitan gurasoekin, goizetik, errokilak jan eta soka tira ikusi eta gero, etxera bueltatzen gineneko lehenengo fotografiak ikusten ditudanean, gaur egungo antzerako irudiak dirudite. Gaztetxo ginenean, lagunekin, bokadi-loak eraman eta lehenengo ardo tragoxkak hartzen genituen. Bergarar askok lehenengo mozkorraldia ere bertan harrapatua dugu, gurdi gaineko kupaletik ateratako ardo fresko eta bizigarrarekin. Eta garai hartako irudiak ere, gaur egungo gaztetxoak ikusten ditudanean burura etortzen zaizkit.

Ez da aldatu San Martzial. Ez horrenbeste. Jende gehiago bai, sukalde eta tresna sofistikatuagoak, akaso, baina jaiaren izaera eta izpiritua antzinakoen antzerakoa dela uste dut. Eta horregatik maite dugu horrenbeste. Horregatik da San Martzial berezia bergararrontzat. Miguel de Unamunok aspaldi idatzi zuen jai honi buruzko artikulutxo bat, goizeko erromeriako giroa azalduz, txokolatea elizpean, trikitixaren soinua eta kantuak eguerdian, bazkari eder askoa, ardo eta pattar basoerdiak eta umore ezin hobe eta pauso okerreko jaitsiera Santa Marinaraño... Gaur egungo kronika dirudi. Horregatik maite dugu horrenbeste eta horregatik, hain zuzen ere, nago triste. Aurtengoan, lan kontu petralak direla eta, kale egingo baitut. Lehenengo aldiz. A ze pena. Ondo pasa.<

«Jende gehiago bai, baina jaiaren izaera eta izpiritua antzinakoen antzerakoa dela uste dut. Eta horregatik maite dugu horrenbeste»

barruan



**Regino Valle**

Appalde elkarteko kidea

**«Gure eskaerak bidezkoak dira. Ez dugu gurea ez den ezer eskatzen»**

6.



**Natxo Millan**

Mitor tabernakoa

**«Bergarako giroari suspentsoa emango notsake: gaztiendako jarduerak falta dira»**

13.



**Ana Belastegi**

Saskibaloiz jokalaria

**«Eskoriatzan asko laguntzen diote nesken saskibaloizari, ez Bergaran moduan»**

21.



# AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



## BEKAK

**Aholkularia.** Eusko Jaurilaritza. Ekonomian edo Zuzenbidean lizentziaduna; hogeita hamabi urte baino gutxiago. Kanpo-merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko 25 beka. Epea: Uztailak 2.

## JARDUERAK

**Antzerkia.** Irungo Udala. Aktoreek 30 urte baino gutxiago. Irungo XVII. Antzerki-Eraskusketan iraupen laburreko antzerkiei eskainitako atala sortu da. Epea: Uztailak 31.  
**Auzolandegiak.** Legambiente elkarteak. Nazioarteko auzolandegiak. Epea: Uztailaren 7an hasiko dira.

## IKASTAROAK

**Sukaldaritza.** Armendariz Etxea. Sukaldaritza ikastaro praktikoa. Epea: azken ikastaroa irailaren 7an.

## SARIAK

**Zigoitiko III. Argazki lehiaketa.** Zigoitiko Udala. Gaia: Horrela ikusten dut Zigoitia. Epea: uztailak 6.

## LANA

**Elgetan udal kiroldegiko instalazioak eta Bolatoki taberna-jatetxea ustiategia.** Elgetako Udala. Epea: uztailak 9.  
**Arkitekto baten lanbide aholkularitza eta laguntza kontratua esleitzeko lehiaketa.** Zarauzko Udala. Epea: uztailak 3.  
**Lau liburutegi laguntzaile eta kultura etxeko bi arduradun.** Donostiako Udaleko Kultura Patronatua. Goi mailako Batxilergoa, LH-2 edo baliokidea. Epea: uztailak 9.  
**Ingeniari teknikoak.** Mungiako Udala. Epea: uztailak 4.  
**Euskara.** Oñatiko Udala. Diplomatua. Euskarazko IV. Hizkuntza Eskakizuna. Normalizazio Linguistikoko tekniko izateko oposizioa. Epea: uztailak 2.

## KARNETAK

Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.


## INFORMAZIO GEHIAGO:

**BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA:** Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiak panelak. Telefonoa: 943 77 91 57.  
E-mail: gzerbitzu@euskalnet.net  
Uztailako ordutegia:  
Osteguna: 08:30-13:30 eta 16:00-20:00.  
Ostirala: 08:30-13:30.  
Abuztoko ordutegia (bi asteen itxita):  
Osteguna eta ostirala: 08:30-13:30.

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztiko informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



### Paputza

Kokospea, papoa (pluralean sarriago).

— Lanai laga zotsanetik orri azi jako paputzak.

## hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

**Ekainak 21, eguna**  
**Ekainak 22, egubakoitza**  
**Ekainak 23, zapatua**  
**Ekainak 24, domeka**  
**Ekainak 25, astelehena**  
**Ekainak 26, martitzena**  
**Ekainak 27, eguaztena**

Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
35 °C	10 °C	— l/m <sup>2</sup>
33 °C	10 °C	— l/m <sup>2</sup>
20 °C	17 °C	— l/m <sup>2</sup>
28 °C	16 °C	— l/m <sup>2</sup>
38 °C	17 °C	0,1 l/m <sup>2</sup>
20 °C	18 °C	— l/m <sup>2</sup>
21 °C	13 °C	2,0 l/m <sup>2</sup>

## mezak

### Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.  
Zapatuak: 19:00.

### San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

### Sierbak

Lanegunak: 19:30.

### Osintxu

Domekak: 11:30.  
Zapatuak: 19:00.

### Elosu

Domekak: 10:30.

### Ubera

Domekak: 10:30.

### San Juan

Domekak: 11:00.

### San Prudentzio

Domekak: 10:30.

## URTE-MEZAK

### Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

### San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

### Labegaraieta

Domekak: 11:00.

### San Lorentzo

Zapatuak: 20:00.

### Angiozar

Domekak: 11:00.

### Monja

### Zaharrak

Domekak: 18:00.

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

**Mizpirualde**

Lanegunak: 11:45.

Zapatuak: 17:30.

### Antzuola

Domekak:

09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

### Uzarraga

Domekak: 10:00.

## urbanoa

### San Lorentzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

**GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

### Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

**GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

## kontuan hartu...

### FARMAZIAK

EGUBAKOITZA 29:

ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

ZAPATUA 30:

MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15

DOMEKA 1:

MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15

ASTELEHENA 2:

CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

MARTITZENA 3:

PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87

EGUAZTENA 4:

GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05

EGUENA 5:

ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

### OGIA

DOMEKA 1. .... Konde

### TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa. .... 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa. .... 943 76 62 46

Ertzaintza. .... 943 76 53 40

Osasun Etxea. .... 943 76 24 40

Asepeyo. .... 943 76 16 43

Pakea. .... 943 76 13 49

Angiozarko medikua. .... 943 78 90 27

Antzuolako medikua. .... 943 76 62 23

Odol emaleak. .... 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak. .... 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak. .... 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea. .... 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea. .... 943 76 62 46

Udal Artxiboa. .... 943 77 91 32

Igerilekuak. .... 943 76 20 51

Kultur Etxea. .... 943 77 91 58

Liburutegia. .... 943 77 91 62

Kiroldegia. .... 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza. .... 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia. .... 943 76 14 92

Erregistroa. .... 943 76 13 15

Jardun. .... 943 76 36 61

Idolaz. .... 943 76 65 08

Jubilatuena Etxea. Bergara. .... 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuena elk. .... 943 76 62 71

Postetxea. .... 943 76 26 85

Bedelkar. .... 943 76 04 68

Akulu AEK. .... 943 76 05 18

Udal euskaltegia. .... 943 76 44 53

Bergarako notaritza. .... 943 76 10 73



oharrak

■ **1971an jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen afaria:**

uztailaren 14an Angiozarko Ortzí jatetxean, 21:30ean. Izena ematea (3.000 pezeta) uztailaren 10era arte zabalik Simon Arrietako Kutzako bulegoan.

■ **San Martzial egunerako:**

Bai Euskal Herriari plataformak kamisetak aterako ditu. Ekainaren 30ean San Martin plazan salduko dituzte.

■ **Udal Liburutegiaren ordutegia:**

liburutegiak uztaileko ordutegiari ekingo dio astelehenean, uztailek 2. Astelehenetik egubakoitzera 8:00etatik 13:30era izango da zabalik liburutegia eta astelehen eta eguenetan goiz eta arratsaldean (16:00etatik 20:00etara).

■ **Otabetako zozketa:**

Elosuko Otaba jaietako zozketan 2.068 zenbakia izan zen saritua. Reyes Alberdi izan genuen zozketako irabazlea.

■ **Xabier Arregi "Txapi" preso ohiaren fidantza:**

fidantza ordaintzeko kontu bat ireki dute Euskadiko Kutxan: 3035 0009 16 0090061013. Horretaz gain, Arrano, Kortazar eta Pol-Pol tabernetan 1.000

eta 5.000 pezetako bono-laguntzak daude salgai. Domekan, berriz, San Martzialen tonbola jarriko dute fidantza ordaindu ahal izateko.

jardunen agenda

■ **Koadrillategi egitasmorako dinamizatzaileak:**

baldintzak: 20 urte beteta izatea, Bergaran edo inguruan bizitzea, euskara menperatzea. Pedagogia, Gizarte Hezkuntza, Soziologia edo Magisteritza ikasketak egiten bazabiltza edota gazteekin aisialdian lan egitea nahi baduzu, bidali Curriculum Jardunera: Jardun Elkartea, Juan Irazabal z/g (Kartzela Zaharra) 20570 Bergara. Informazioa: 943 76 08 19 eta 943 76 36 61.

Hurrengo alean,  
uztailaren 6tik 12ra  
bitartekoan zorion agurrak  
argitaratuko ditugu.

zorionak!



**Asier Muñoz**  
1ean 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Maialen Leturia**  
2an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Mireia Gallastegi**  
2an 32 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak, Iñigo,  
Carmen eta Piti.



**Ander Elizburu**  
3an 12 urte.  
Urte askotarako!  
Aitor eta Miren.



**Mikel Agirrezabal**  
5ean urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Nerea.



**Ane Kortabarria**  
2an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Aitxajuna Bixente**  
2an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Saioa, Leire eta  
famiakoak.



**Marta Molina**  
30ean urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta  
Markel.



**Miriam Moñux**  
2an urtebete. Zorionak! Aitaxo, amaxo, Andoni, Marta, Esther eta Juli.



**Miriam Moreno**  
4an 9 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak eta  
anaia Christian.



**Lorea Vicente**  
30ean 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Iosu Herran**  
5ean 6 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Aritz Uribealzo**  
1ean 26 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak, Ainara  
eta Eider.



**Libe San Miguel**  
30ean 8 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Ane Miren Zabala**  
29an 20 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta ahizpa  
Jasone.

- Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefona: 943 76 16 63

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62



**Matxiategi  
Elektragintza  
S.L.**

**ELEKTRIZITATE  
MATERIALEN  
SALMENTA ETA  
INSTALAKUNTZA**

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

**BERGARA  
MARMOLERIA**

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu estalkiak

Urarte 8 BERGARA  
943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77



**Appalde, Debagoieneko aurre-erretiratutako en eta alargunen elkarteko kide dugu. Joan den eguaztenean egunkarietan ikusi ahal izan genuen, Bilbon izandako manifestazio baten parte hartzen. Pentsio duina-koak aldarrikatzera joan ziren.**

**G.** Zergatik erabaki zenuen elkarteko kide egitea?

**E.** Nire egoera pertsonala ez zelako oso ona. Hala ere, arazoa ez zen nirea bakarrik. Bergarako aurre-erretiratuen eta alargundu diren emakume askorena da. Azken horiek miseria bat kobratzen ari dira: pentsioak arautzeko oinarriaren %45 kobratzen dute. Hau da, soldata nahiko duina kobratzen dute senarra bizi-rik duten bitartean, baina hiltzen denean, oso egoera kaskarrean geratzen dira; pentsioa izugarri jaisten da.

**G.** Pezetatan hitz egitea ez da oso erraza, kasuz kasu ikusi beharko litzatekeelako bakoitza. Baina, batez bestekoa zenbatean dago?


**E.** Hirurogei mila pezeta inguru dabil batez bestekoa, gutxi gorabehera; izan ere, zaila da esatea, hori betiere senarrak zuen oinarri erregulatzailaren arabera da. Baina, adibidez, senar-emazte batzuk ehun mila pezetako pentsioa kobratzen ari badira, senarra hiltzean, alargunak berrogeita bost mila pezeta kobratuko ditu. Horrekin esan nahi du-dana da, erdia baino gehi-ago jaitsi dela. Eta, noski, senarra bizi zenean bezalako karga badu, hau da, seme-alabak, ba, esango didazu. Zeren eta alargundu, gazte ere alargundu daiteke, eta oraindik seme-alabak etxean izan.

**G.** Noiz hasi zen elkarte bat eratzeke mugimendua?

REGINO VALLE

Appalde elkarteko zuzendaritzako kidea

*«Gure eskaerak bidezkoak dira. Ez dugu gurea ez den ezer eskatzen»*



Regino Valle ekainaren 13an berrituz duden zuzendaritzako kide da.

**E.** Errealitate horren aurrean zerbait egin behar zela, eta, hemen, Debagoieneko, oñatiarrak hasi ziren mugitzen.

Nik aurre-erretiratuenda-ko elkarte bat sortzekotan ari zirela entzun nuenean, harremanetan hasi nintzen.

**G.** Beraz, aurre-erretiratuendako elkartea izan behar zuen hasieran.

**«Senarra bizi den bitartean, pentsio nahiko duina kobratzen dute emakumeek. Alarguntzean, egoera eskasean geratzen dira»**

**E.** Bai. Baina alargunen arazoa oso handia dela ikusi-za bien arazoa elkarte be-rean batzen da.

Lehen esan bezala, Oñatin hasi zen Appalde mami-tzen. Behin bilera bat zutela entzun eta bertara joan nin-tzen, horrela, poliki-poliki bergarar batzuk ere kide egin gara. Gutxi, hala ere. Eta gauza bera Arrasaten.

Gaur egun Bergaran 19 bazkide daude, Arrasaten 65 eta Oñatin 96. Hala ere, bes-te bailara batzuetan ere gu-re-a bezalako beste elkarte batzuk sortu dira, eta guz-tiak Euskadi mailako elkarte batek kudeatzen ditu. Hori da, hain zuzen, alderdi poli-tiko, sindikatu eta abarrekin jarduten duena.

**G.** Zein da elkartearen azken helburua?

**E.** Legeak markatzen di-tuen hogeita hamabost urte-ak, aktiboan, kotizatu ditu-gunok %100 kobratzea. Alargunen kasuan, %45 ko-bratzetik %80ra igotzea.

Hori bai, aurre-erretira-tuen kasuan, %100 eskatzen dugu, betiere legeak esaten dituen hogeita hamabost ur-teak kotizatzuz gero.

**G.** Zergatik eskatzen du-zue hori?

**E.** Bidezkoa delako. Ez dugu gurea ez den ezer es-katzen. Hirugogeita bost ur-teak lanean bete baditut, %100 kobratuko dut, nahiz eta, soilik, hogeita hama-bost urte kotizatu. Baina hi-rurogeita bost urteetara ez banaiz heldu, nahiz eta be-rrrogeita hiru urte kotizatu, %40 kenduko didate.

**G.** Hainbat mobilizazio egin dituzue.

**E.** Bai, Bilbon joan den eguaztenean egindako ma-nifestazioa, esaterako. Pen-sio duinagoak aldarrikatze-ra joan ginen, eta estamentu guztiak horretan dabiltzala dioten arren, guk ez dugu ezer ikusten.



## Urteetako ohiturari jarraituz, domekan San Martzialen lotuko gara herritarrak

Dantza, herri kirolak, jan-edana eta lagunartea izango dira nagusi

**Gainean dugu San Martzial. Ja, guztia prest da go domekan San Martzialera igo eta egun pasa polita egiteko. Hala ere, bihar, zapatua, santuaren eguna izanik, hainbat ekitaldi daude jai eguna ospatzeko.**

Domekan, uztailak 1, San Martzial erromeria ospatuko da, herritar askorentzat jairik politenetakoa. San Martzial eguna zapatuan, ekainak 30, izanik, egun horretan ere hainbat ekitaldi egongo da. 7:30ean, letania erreztatuz San Martzialera igoera egongo da, eta ondoren, meza San Martzialgo ermitan. Mezaren ostean, San Joxepeko kideek txokolatea banatuko dute. Eguerdi partean, erretiratuaren bazkaria egongo da kanpan.

19:00etan bonba japoniarrak egongo dira San Martin plazan, eta, ondoren, buruhandi eta erraldioen kalejira, Udal Txistulari Bandak eta Kobok dultzainero taldeak lagunduta. Azkenik, 22:30ean, "Arantza & Panchito" taldearekin Hego Amerikako musika izango da Fraiskozuri plazan.

### DENOK SAN MARTZIALERA

Horrekin guztiarekin baina, egun handia domekan ospatzen da Bergaran. 9:30ean alborada egongo da Erletxo taldeko dultzainero, Zumarragako trikitilari, Incansables txaranga eta Udal Txistulari Bandarekin. Ostean, 10:00etan, ohioko gurdi igoera egingo da San Mar-



Urtero urtero, jende ugari hurbiltzen da mutilen aurrekua ikustera.

AZUR

tzialera, eta 11:00etan meza nagusia.

12:00etan Xamatx dantza taldeak emanaldia eskainiko du San Martzialgo kanpan, eta amaitu ostean ohioko sokadantza eta aurrekua dantzatuko dituzte.

Dantzaldia amaituta, Narbaiza eta Egileor betso-lariak saioa eskainiko dute, eta, ondoren, gustuko dutenek, abesti herrikoiak kantatzeko aukera izango dute kantina aurrean.

### SOKATIRA ETA TXINGAK

Bazkariaren ostean, 16:00ak aldera, umeendako jolasak egongo dira, eta 18:00etan nagusiagoendako herri jolasak: sokatira, batetik, eta bestetik, txingak. Sokatira jokorako zortzi lagunez osatutako taldeak beharko dira, hamasei urtetik gorakoak. Gehienez zortzi taldek jokatuko dute emakumezkoetan, eta beste horrenbeste gizonezkoetan. Izena ematea egunean bertan egingo

da, 17:00etan. Txingetan, emakumeentzat 25 kg-ko txingak izango dira, eta gizonezkoentzat 50 kg-koak. Herri jolasen ordu berean Aranzabal orkestraren dantzaldia hasiko da, eta bolatokia egun osoan egongo da irekita. Kantina eta txosnaren kasuan, Senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak taldeek kudeatuko dituzte. 21:00etan, jaitsierako txupinazoa jaurtiko dute, eta kalerainoko bidea txistulariek, dultzaineroek eta txarangak alaituko dute.

### URBANOAK

Aurten ere urbanoa jarriko du udalak San Martzialera igotzeko. Zerbitzua 15:00etan hasiko da, eta beste ibilgailuendako itxita geratuko da bidea (zama-lanetakorakoendako izan ezik). Santa Marina atzean hartu beharko da urbanoa, eta San Martzial sarreraraino helduko da. Bestalde, San Martzialen egon daitezkeen ibilgailuek Surratik jaitsi beharko dute, eta aparkatuta egon bitartean ezingo dira zelaian egon, horretarako prestatuko den gunean, baizik. Horrez gain, 10:15ean bidea moztuko da, une batez, gurdia igotzeko. Azkenik, aipatu, joan den egubakoitzean, San Martzialgo zelaian sutea izan zela. Goi-zean belarra moztu eta erre egin zuten, domekarako dena prest egoteko. 14:30 aldera, baina, ondo itzali gabe zegoen, eta sua piztu zen berriz. Suhiltzaileek berehala itzali zuten.



Ondo ez itzaltzeagatik, egubakoitzean sua piztu zen. Suhiltzaileek itzali zuten.



# 2002rako Osintxun zubi berria eraikiko dute enpresek

**Halaxe** esan zuen, be-  
deren, Gallastegi alkateak  
asteleheneko osoko bilku-  
ran: "Osintxuko poligonoko  
Soraluze, Urzelai eta Begu  
enpresei argi utzi nien  
2002rako zubia eginda egon  
behar duela".

Enpresa horiek irteera  
egokia izan dezaten zubi  
berri baten beharra ez da  
gauza berria. Duela urte ba-  
tzuk, industriaguneko en-  
presak nekazaritza lurretan  
eraikita egonik, arau subsi-  
diarioetan aldaketa gertatu  
eta industria-lur bezala jaso  
ziren. Horrek industrialdean  
urbanizazio proiektua egitea  
agintzen du, eta hor koka-  
tzen dira industrialde barru-  
ko bidea eta zubia bera,  
besteak beste.



Irudiko zubia erabili izan dute kamioiek. XVII. mendeko zubi erromanikoa.

Soraluze enpresak azke-  
neko anpliazioa eskatu zue-  
nean, HBk zera proposatu  
zuen: ezinbestekoa zela an-  
pliazioa egiteko zubi berri  
bat eraikitzea. Hala ere, as-  
telenera arte ez da gauza

garbirik jakin. Bien bitarte-  
an, enpresek Osintxuko zu-  
bi bakarra erabili dute; XVII.  
mendeko katalogatutako  
zubi erromanikoa. Zubi be-  
rria Gerondotik 100 metrora,  
Osintxurantz, egingo dute.

## Angiozarko frontoian berriz konponketak

**Arbiaska** frontoiko  
zorua ez dago pilotan  
egiteko moduan, hain-  
bat pitzadura ditu eta.  
Udalak asteleheneko  
osoko bilkuran zorua  
konpondu eta bost mi-  
lioio eta erdiko gastuak  
horrela ordaintzea era-  
baki zuten: udala, enpre-  
sa eraikitzailea eta obra  
zuzendarien artean.

## Zuber enpresaren gaineko zuzenketa


**457.** aleko albisteari  
gehitu nahi diogu, zu-  
zendaritzarekin negozia-  
ziotan ELAko Xabier Ga-  
ritano aritu dela, ELA  
baita sindikatu nagusia.

# Bota dute, dagoeneko, Gorlako Kantina zaharra

**Gorlako** Kantina zaha-  
rra joan den egubakoitzean  
bota zuten. Urte asko zera-  
matzan Gorlan; uztailaren  
10ean 30 urte beteko ziren  
inauguratu zutela. Gogora-  
tu, udala akordio batera hel-  
du zela jabeekin. LKS en-  
presak Kantina tasatu, eta  
udalak kalte-ordain gisa mi-  
lioio eta erdi pezeta eman  
dizkie jabeek. Eraikina bota-  
tzearekin batera, zorua ber-

dintzen jardun zuten langi-  
leek. Izan ere, orube hori  
berdegune gisa erabiltzeko  
asmoa du udalak.

Bestalde, Kantina berria  
ere irekita dago, eta aurre-  
rantzean Otsobeltz izena  
izango du. Bergarako bi  
gazteren ardurapean dago,  
eta honako ordutegia izan-  
go du: astegunetan 12:00-  
etatik aurrera eta asteburue-  
tan 10:00etatik aurrera.



Langileek hainbat kontzentrazio egin dituzte enpresa aurrean.

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

**ANCEPE**

ANCEPEK  
homologatutako  
diploma

Ile apaintze eta estetika zentruak  
**Kalitatezko irakaskuntza**

**MATRIKULA ZABALIK**

**DAMKAR'T**  
Eibar. 943 12 15 18

**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...**

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA



# Xabier Arregi 'Txapi'ri ere ongietorri beroa egin diote

**Astelehenean** utzi zuten aske Xabier Arregi 'Txapi', eta martitzenean egin zioten ongietorria hainbat herritarrek. Batetik bere auzoan, Osintxun, eta bestetik Bergaran, San Martin plazan.

Xabier Arregi, 'Txapi', martxoaren 11an atxilotu zuten Baltasar Garzon epailearen aginduz. Hasieran, Haikako kide izatea leporatu zioten, eta handik gutxira salaketa aldatu, eta Ekineko bailarako arduradun izatea leporatuta, espetxeratzeko agindua eman zuen epaile berak. Ordutik Alcalá-Mecoko espetxean egon da, ia lau hilabetez.

Esan bezala, astelehenean utzi zuten aske, baina



Argazkian Txapiri martitzenean egindako ongietorriaren une bat.

5 milioi pezetako fidantza ordaindu ondoren.

Bestalde, joan zen larunbatean Luis Etxeberria eta Jose Mari Etxanizi ongietorria egin zitzaizen San Martin plazan. Jende ugari hurbil-

du zen, eta Juan Martin Elexpuruk, Bergarara plataformak, oraingoz, bere lana bukatutzat eman duela adierazi zuen. Gauean, preso ohien omenez herri afaria izan zen pilotalekuan.

## Kalean dira etxeko etxeko zerbitzua esleitzeko baldintzak

**Udaleko etxeko** etxeko zerbitzua esleitzeko lehiaketa arautuko duten baldintzak onartu zituzten joan den asteleheneko osokoan bilkuran. Esleipenaren lizitazio oinarria, 2.141 pezetakoa da zerbitzua ematen den ordu bakoitzeko. Bestalde, kontratua lau urtekoa izango da. Baldintza plegua onartu arren, EHko kideek zerbitzu pribatuaren aurka daudela azaldu zuten, «udalak zerbitzu publikoak behar dituelako». Baina despribatizatuko ez dela ikusita, zerbitzua ahalik eta onena izatea nahi dutela gaineratu zuten, eta horregatik eman zutela baietza.

# Bi milioi eta erdi emango dizkio udalak Udalbiltzari, ez onartutako hogeita zazpiak

**Halaxe** erabaki zuten astelehenean, osokoan bilkuran. EAJ-EA Udalbiltzari bi milioi eta erdi pezetako ematearen alde azaldu zen. EH, ez, eta ezta PSE-EE alderdia ere, nahiz eta arrazoi oso ezberdinengatik. Hala ere, koalizioaren zortzi botoekin, aurrera egin zuen bi

milioi eta erdiko diru izendapenak.

Aurrez, maiatzaren 28an izandako osokoan bilkuran, Udalbiltzari 2001. urteko aurrekontuen %1 ematea erabaki zuten, EHk aurkeztutako mozio baten ondorioz. Hau da, 27. 516.552 pezetako. Astelehenean, bai-

na, EAJ-EAk gehiegi iruditzen zaiola esan eta maiatzaren 28an onartutakoa atzera bota zuten. Gallastegi alkatearen arabera, ez zuen mozioa irakurri, eta ondorioz ez zekien EHk 27 milioi eskatu zituela Udalbiltzarako. «Konfiantza guztiarekin jokatu nuen eta mozioa ira-

kurri ere ez nuen egin, aurrez, Hazienda batzordean, adostuta genuelako 2,5 milioi pezetako». Aitor Goitik, EHko ordezkari gisa, kopuruari buruz berbarik egin ez zutela aipatu zuen. «Berba egindako bakarra mozioa plenora noiz ekarri izan zen, ez kopurua».

**LAKET**

gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

**IBARGYREN PENTSVAK**

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak

**Biona**  
BANATZAILEA

San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

**Garnish**

**Bitxitegia**

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57



# Berrigara

458 zenbakia.  
2001eko ekainaren 29a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.  
20570 Berrigara.  
Telefonoa: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta elektronikoa:  
berrigara@topagunea.com  
Argitaratzailea: JARDUN Elkartea

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Mireia Larrañaga.  
**Harpidetzatza:** Nerea Lazpiur.  
**Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate,  
Gari Bragado.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate,  
M. Angel Elkorobereizabar, Alex Labaien,  
Estepan Plazaola.  
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega,  
Usoa Mendikute, Gorka Ortega &  
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.  
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre,  
Maitane Arizabaleta, Juan Martin  
Elexpuru, Gorka Ortega.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk.  
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazki nagusia: Alberto Arruti  
'Azur', gainerakoak, Berrigara.

Tirada: 5.500 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Berrigara  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## atrebentzia ezpada

### San Martzialera juateko asmorik badaukazu? Zela ibiltzen zarete tokixa hartzeko?



**Jose Martin Unamuno**

Arratsaldian juango naiz  
buelatxo bat egittera, baiña  
goizean ez naiz juaten. Izan  
be, egun horretan Elgetako  
ferixara juango naiz.



**Olga Gonzalez**

Behin bakarrik egon naiz,  
goizian egon nintzan,  
buelatxo bat egin giñuan,  
baiña ez daukat juateko  
ohitutarik.



**Karmen Zabaleta**

Tokixa urteroko arazua  
izaten da. Dana dala, gu  
egunian bertan juaten gara,  
eta libre dagon hutsunian  
jarri.



**Mertxe Lasa**

Azkeneko urtiotan ez naiz  
juan. Juan naizenetan, aste  
bat lehenago juan izan gara  
tokixa hartzera. Lehen ez  
zan holako arazorik egoten.



**David Lopez**



Bai, juango naiz. Tokixa  
hartzera hilabete lehenago  
juaten gara, bestela ez da  
tokirik egoten. Mahaixak  
udaletxian hartzen dittugu.



**Ruben Liberal**

Guk ez dogu mahairik  
hartzen. Bokadilluarekin  
juaten gara bazkaltzera.  
Beraz, ez dogu toki  
arazorik edukitzen.

## tira biraka oihan vega





# 2001/2002 ikasturterako matrikula

**Ohiko matrikula epea: uztailaren 2tik 6ra**

## IPINTZA INSTITUTUA

Boni Laskurain, 19. 09:00etatik 13:30era. 943 76 31 42/43. Faxe: 943 76 06 80

### Batxilergoak

**MODALITATTEAK:**

**Teknologikoa**

**Giza eta gizarte zientziak**

**Natur eta osasun zientziak**

**IRTEERAK:**

**Unibertsitateko karrera denak**

**Goi mailako heziketa zikloak**



## M. ALTUNA INSTITUTUA

Ibargarai, 1. 09:00etatik 13:00era. 943 76 38 40. Faxe: 943 76 38 41



AENOR  
ER  
Empresa  
Evaluatzailea  
ER-0526/2/98

### Goi mailako prestakuntza zikloak

**Administrazio eta finantzak**

**Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak**

**Mekanizazio bidezko produkzioa**

**Proiektu mekanikoen garapena**

**Plastiko eta kautxugintza**

**Idazkaritza\***

### Erdi mailako prestakuntza zikloak

**Mekanizazioa**

**Ekipo eta instalazio elektroteknikoak**

**Administrarritza kudeaketa\***



\* Ziurtagiriaren eremutik kanpo.



**SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA**

Bergarako ikastetxe publikoak



## adituen esanetan

# Udako elikadura

Uda heltzen da eta jateko ohiturak aldatu egiten dira. Orokorrean, gutxiago jateko edo zenbait aldizkaritan agertutako dietaren bat egiteko asmoa sortzen zaigu gehientsuenoi. Aproposena, jakina, dietalari batengana joatea da, hura delako egokiena guri laguntzeko, dieta pertsonalizatu, orekatu eta gure gustuko ipiniko digulako eta, halaber, pisua kontrolatuko digulako.

Pisua galtzeko asmorik ez dutenen artean ere elikadura ohiturak aldatu egiten dira udan. Tenperatura altuak direla eta metabolismoa moteldu egiten da, hau da, energia gutxiago erretzen da eta, gainera, lasaitasun eta aisialdi garaia denez, askok jarduera fisikoa alde batera uzten dute.

Udako eguraldiaren ezaugarri den berotasunak eskatzen dituen elikagaiak hartu behar dira, kirola behar bezainbeste egiten bada betiere. Gauza freskoak izaten dira gogoko: entsalada, esaterako, oso aukera egokia da, baraz-



BITTOR RODRIGUEZ


Elikagaien teknologoa

*«Uda partean, tenperatura altuak direla eta, metabolismoa moteldu egiten da, energia gutxiago erretzen da»*

kiek ur, zuntz (udan jaten diren elikagai finduek sor dezaketen idorreria ez izateko), bitamina (tomate edo azenarioaren beta-karotenoa beltzaran jartzeko eta kolorerik ez galtzeko) eta mineral ugari emango digute. Patata edo pasta egosiz laguntzen badugu, gainera, energia ere lortuko dugu (kirolzaleentzako proposa). Horrez gain, garai honetan fruta gehiago jaten da (fruta hutsa edo mazedonian jateko aukera dago), ur, zuntz, bitamina eta mineral ugari izateaz gain,

guztiz freskagarria delako. Entsalada eta mazedoniak oso aproposak dira, era erakargarri askotan presta baitaitezke. Arraina eta okela jateko beharra ere badago, baina beste urtaro batzuetan baino gutxiago, batez ere saltsarekin badira.

Urak oso garrantzi handia dauka, tenperatura dela eta izerdi edo arnas ketaz ur asko galtzen delako, hortaz, fruta-urak, elikagai urtsuak eta ura bera dezente hartzea komeni da.



Ur, fibra, bitamina eta mineral ugari izateaz gain, fruta guztiz freskagarria da.

## bergarako zuhaitzak



Elorri zuriak Labegaraletan.

## Elorri zuria

*Crataegus monogyna*

Mota guztietako lur eta klimetan hazten den hosto erorkorreko arbola da. Egur gogorra du eta erregai ona da, eta antzina erremintan kirtanak egiteko erabiltzen zen. Fruta-arbolen txerto edo patroï moduan erabiltzen da, besteak beste, mizpirondo eta madariondoena.

Elorri zuriaren arima emakume edo dama baten islatzen da, arantzak urte osoan ditu eta neguaren amaieran bakarrik biluzten da. Udaberrian soineko zuriz janzen da, eta hosto berri lobulatuen distira du. Udan berde-berde jartzen da, eta udazkenean fruitu biribil eta gorriak ematen ditu. Bergaran dama eder hori Ozaetan aurki dezakegu.

Gaur egun lorezaintzan geroz eta gehiago ikusten da espezie hori; hainbat barietate atera dituzte (San Lorentzon) eta oso heskai iraunkorra osatzen du (Santa Ana ermitaren inguruan). Fruitua garrantzitsua da hegaztien janari delako, nahiz eta lorezaintzarako ateratako barietateen fruitua hegaztiei ez gustatu.

Euskal Herrian etxea, jendea eta abar babesten dituen ustea dago, eta horregatik, San Juan egunean elorri zuriaren adarrarekin egindako gurutzea etxeko atean jartzen da. Tximistengatik ere babesten gaitu, hau da, ekaitza dagoenean haritz eta pagoen azpian jartzea arriskutsua da, elorri zuriaren azpian, ordea, babesa lortzen dugu.

Bere loreak, hostoak eta fruituak bihotz toniko eta nerbio lasaigarri onak dira, erritmo kardiakoa erregulatzen dute eta, aldi berean, bihotzeko arterien odol zirkulazioa hobetzen dute.

Testua: Maitane Arizabaleta.



38°C

## Urteko egunik beroena!

Joan zen **astelehenean**, izugarrizko beroa egin zuen. Aurtengo egunik beroena izan zen. Termometroek nahiko lan izan zuten, gutxitan iristen diren neurria iristeko. **38 gradu** markatu zituen San Juan auzoko gure kolaboratzaile Luis Mari Agirrerren termometroak.



## Lasai Tokik 25 urte

**1976ko uztailaren 24an** inauguratu zuten **Lasai Toki** elkarte. 25 urteak ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Joan zen egubakoitzean, ekitaldien aurkezpena egin zuten. Uztailaren 11n, **Koldo Lasak** sukaldaritza saioa egingo du, eta Bergarako gainerako elkarteei afaria eskainiko zaie. Uztailaren 21ean eta 24an ere afariak egingo dituzte. Irailean eta azaroan ere hainbat ospakizun egingo dituzte.

## AABren zozketa

Amnistiaren Aldeko Batzordeko Pazkoetako egubakoitzerako antolatu zuten zozketan, **Antonio Morais** izan da irabazlea (7.124 zenbakidun txartela): Zumelaga jatetxean **lau lagunendako afaria**. Eguaztenean jaso zuen saria AABko kide Andoniren eskutik.



## Bergarako Shotokan Karate-Dok ZORIONIK BEROENAK

eman nahi dizkie bere ikasle guztiei aurtengo emaitza bikainengatik. Irailean ikusiko dugu berriz ere elkar!



## SHOTOKAN KARATE-DO

*Shotokan txapeldunen eskola!*







# Kataibiako plaza udalaren esku laga du Santa Marinak

Hainbat konponketa egingo dituzte Kataibian eta parrokia inguruan

**Asteleheneko osoko bilkuran onartu zuten Santa Marina parrokiarekin hitzarmena sinatzea, EAJ-EA eta PSOeren aldeko botoekin. EHk kontrako botoa eman zuen. Hitzarmenaren arabera, Santa Marinak udalaren esku laga du Kataibiako plazaren erabilera. Bestalde, parrokia kanpoaldean ere hainbat konponketa egingo ditu udalak. Santa Marina parrokiak, bere aldetik, berrikuntza lan batzuk egingo ditu.**

**A**spalditik zeukan udalak Kataibiako plaza konpon-  
tzeko asmoa. Andoni Sistiaga arkitekto donostiar-  
rak egin zuen proiektua, eta 1999ko maiatzaren 17an onartu zuen udalbatzak. Kataibia konponduta, azoka jarduera guztia gune berean kokatu nahi zuen udalak; eta, bestetik, oso hondatuta dagoen Kataibiako eremu hori txukundu. Proiektu hark, baina, Kataibiako plaza bakarrik hartzen zuen bere baitan. Kataibiako plaza, gainera, parrokiarena zen. Horregatik, Gotzaindegiarekin eta Santa Marinarekin harremanetan jarri zen udala.

## PARROKIA INGURUAK

Orduan, Kataibiako plaza ez ezik, inguruak ere txukuntzea proposatu zion Gotzaindegiak udalari. Victoriano Gallastegiren esanetan, «eurekin elkarla-

nean aritu ginen, eta guk ondo ikusi genuen parrokia inguruetan konponketak egitea; izan ere, nahiz eta lurra parrokiarenak izan, herritarrok erabiltzen ditugu». Gauzak horrela, hasierako proiektuari aldaketak egin dizkiote.

## HITZARMENA SINATUTA

Asteleheneko osoko bilkurak baiezkoa emanda, aste honetan bertan sinatu dute hitzarmena Victoriano Gallastegik eta Xabier Azkoitiak, udalaren eta Santa Marina parrokiaren ordezkari gisa, hurrenez hurren.

Hitzarmen horren arabera, esan bezala, Kataibiako plazako lur eremuaren erabilera udalari laga dio parrokiak. Lagapen hori zehaztugabeko eperako izango da. Bestalde, hasierako proiektuari egindako aldaketak zeintzuk izango diren ere azaltzen du hitzarmenak. Aldaketok dakartzaten lanak bere gain

hartzen ditu udalak hitzarmenaren birtatez. Behin hitzarmena sinatuta, lanak esleitzea izango da eman beharreko hurrengo urratsa.

## PROIEKTUA BIRMOLDATU DUTE

Alde batetik, arazo teknikoak medio, erreka alboan egitekoak ziren horma ez dute egingo. Horren ordez, elizaren alderdi hori indartzeko, horma-bularrak ezarriko dituzte.

Bestalde, Gotzaindegiarekin eta Santa Marina parrokiarekin izandako hartu-emanen ondorioz hitzartutako aldaketak ere jasotzen dira hitzarmenean.

Gauzak horrela, hainbat konponketa egingo dituzte Santa Marina inguruetan. Sakristau etxeko erreteila egingo dute, eta baita kanpoko hormak berritu ere. Sakristau etxearen kanpoaldean patio ingelesa egiteko asmoa zuten,



baina horretan ere aldaketaren bat egingo dute, seguruena, Santa Marina kalifikatutako ondarea delako, eta patioak kalte egingo liokeelako. Bestalde, Kataibiako lurra jaso behar dutenez, elizarendako hoditeria sartuko dute. Kataibiako elizpe txikiko hormak eta teilatua ere konponduko dituzte, eta zoru berria jarriko dute eliza-eremuko gunean. Sarbide itxi bat ere egingo dute, beharrezko denean, hileta elizkizunetan, batez ere, kotxeak aparkatzeko.

### EHK EZEZKOA EMAN DIO HITZARMENARI

Hitzarmenaren gaia mahai gainean lagatzea proposatu zuen Jesus Mari Garitanok EHren izenean. Bere ustez, «osoko bilkurara ezin da etorri informatu gabe. Guri helarazi diguten hitzarmena inork ez du ezagutzen, alkateak bakarrik, eta gainera, ez da inon eztabaidatu. Horretaz gain, hitzarmenarekin batera, planorik ere ez digu inork eman». Gaia mahai gainean lagatzearen proposamenari ezezkoa eman zion alkateak, eta horregatik, ezezko botoa ematea erabaki zuten EHko zinegotziek. Bestalde, Santa Marinako eliztarrek bere ondarearen alde egindako lana azpimarratu zuen Jesus Mari Garitanok bere hitzaldian.

Ondoren hitzarmenaren balorazioa egin zuen. EHren ustez, «hitzarmena ez da orekatua. Herritarrek jakin beharrekoa da, elizak zer eman dion udalari, eta udalak zer eman dion elizari hitzarmen horren bitartez. Udalak karga ugari hartu ditu bere gain; elizak, berriz, Kataibiako lur eremua laga dio udalari, baina erabilerarako besterik ez; hau da, elizak jarraitzen du lurren jabea izaten». Garitanoren ustez, ezinbestekoa da lurren jabegoa udalari ematea, eta ezin da onartu erabiltzeko lagapena bakarrik egitea.

Gainera, duela bi urte proiektua onartu zenean egin zuten moduan,



Aurrera begira, Santa Marina inguruan ere hainbat lan egiteko asmoa dauka udaia.

proiektu zabalago bat egin beharra zegoela esan zuen Garitanok osoko bilkuran. Alkateak, arkitektoak horrextan diharduela erantzun zion, eta oraingo proiektuari gehituko diotela.

### KATAIBIA, AZOKA ETA AISIALDIRAKO PLAZA

Hasierako proiektuan, esan bezala, Kataibiako plaza hartzen da soilik kon-

tuan. Proiektu horren arabera, zapatuetako azoka egiteko eta aisialdirako gune bezala egokituko da gune hori. Erreka kontran 24 metro luze izango duen aterpe bat jarriko dute. Aterpe horretan jarlekuak jarriko dituzte, eta zapatuetan merkatariek erabili ahal izango dute. Asteaz zehar, berriz, edozein herritarrek. Merkatariek, hala ere, plaza guztia erabili ahal izango dute.

## Hitzarmena

Kataibiako lurren lagapena eta proiektuan egin beharreko aldaketak jasotzen dira

## EHren ezezkoa hitzarmenari

Gaia hobeto sakondu eta hobeto informatzeko, mahai gainean lagatzea proposatu zuen



Urteaga 9  
Tf. 943 76 18 45

**LONBIDE**  
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



**SANTOS**



Elektrikako tresnak eta argiztapena

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10




Zuhaitzak ere jarriko dituzte, eta lurzoru konponduko dute. Lan horiek guztiak egingo dituzte lehendabiziko fasean. Eta baita Santa Marina parrokiaren kanpoaldeko txukuntze lanak ere, aurretik aipatutakoak hain zuzen ere. Bigarren fasean, berriz, zubia, aparkalekua eta Usondo parkearen zati bat hartzen dituen proiektua abian jarriko da. Lan horien guztien proiektua, oraingoaren eranskin moduan onartuko dute.

## SANTA MARINAN KONPONKETAK

Parrokian bertan ere hainbat konponketa egingo dituzte. Hiru fasetan egingo dituzte lanak. Lehenengoan, instalazioari dagozkionak: berogailua, argiteria eta megafonia, esaterako. Lehenengo fase horretan, gainera, parrokiaren egiturari ere hainbat konponketa egingo dituzte: barruko hormak, gangak eta abar.

Bigarren fasean, erretaula nagusia eta alboetako txikiagoak berrituko dituzte. Baita koadroak ere.

Eta hirugarrenean, azkenik, Sakrista etxea barrutik konponduko dute, eta baita organua ere.<



Santa Marinako erretaulak eta koadroak konponduko dituzte, besteak beste.

POL-POL ARGAZKI TALDEA

# EUSKALDUNON 01 GIDA KOMERTZIALA


Profesionalen eta merkataritza alorreko helbide eta telefonoz osatua

KOLOREETAN

ZURI EGOKITUA

- Erabilgarriagoa
- Eraldatua

aurkibidea  
SEKTOREKA



aurkibide  
OROKORRA




aurkibide  
ALFABETIKOA



ARTIKULUAK



gida  
WEBGUNEAK



**DOAN**  
**EGUNKARIArekin**  
**EKAINAREN**  
**30ean**

**Egunkaria**



# ARANZADI IKASTOLA

## Batxilergorako matrikulazio epea zabalik

**Uztailaren 2tik 6ra arte**

Goizez: 8:30-13:00 Arratsaldez: 15:00-18:00

### **BATXILERGOA**

#### **Modalitateak:**

- **Osasun eta natur zientziak**
- **Gizarte eta giza zientziak**

#### **Unibertsitaterako lau irteera:**

- **Zientifiko-teknikoa**
- **Osasun zientziak**
- **Giza zientziak**
- **Gizarte zientziak**





# Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



## EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauek dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzeraz bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express**.

Emaitzak bidean daude.



**GUIPUZCOANA**  
**EURO EXPRESS**



Hamar urtian San Blas galdaragintzan lanian jardun ondoren, duela pare bat hillabete Mitor taberna zabaldu zeban eta ilusiñoz dihardu tabernari lanetan. Gazte-gaztetandik argazkizalia da, eta Pol-Pol argazki taldeko kidia da.

### Nundik dator Mitor izena?

Nere lehen bi abizenetatik: Millan, Torrijo.

### Ze izan nahi ziñuan txikittan?

Diktaduraren bukaera bizi izan nebanez, bizirik irautiak konforme nitzan.

### Tabernari izateko zer bihar da?

Pazientzia eta inbertsiño haundixa.

### Lan, egunez ala gauetz?

Berdin jat, *todoterrenua* naiz.

### Tabernako lanik gustokuena?

Barran jardutia.

### Eta txarrena?

Garbittasun kontuak.

### Gauza asko ikusten dira barratik?

Gehixegi...

### Laneko ordu hiletan zer egitten dozu?

Kontuak eroan.

### Zelako musika gustatzen jatzu?

Bakailaoa kenduta, ixa dana.

### Musika talde bat?

Scorpions.

### Puntuatu Bergarako girua.

*Gutxiegi.*

### Zer falta jako Bergarari?

Gaztiendako jarduerak.

### Parrandarako toki bat?

Gogua izan ezkerro, edozein.

### Edari bat?

Garagardua.

### Zer da jendiak gehixen edaten dabena?

Zurituak eta kalimotxua.

### Eskatu dotsuen gauzarik arraruena?

Mostua gaseosiakin.

## Natxo Millan

### Denbora librian zer egitten dozu?

Oin ez daukat denbora librerik. Lehen argazki kamariakin ibiltzen nintzan.

### Erretratuak, txuri-beltzian ala koloretan?

Txuri-beltzian.

### Kolore bat?

Beltza.

### Zein zeinutakua zara?

Leo.

### Horoskopoa irakurtzen dozu?

Bai, barre egitteko.

### Zer ategin dozu gehixen?

Emakumiak eta irakurtzia. Liburuak leialak die, baiña emakumiek ez dabe kasorik be egitten.

### Zer dozu gustoko emakumietan?

Lehenbizi, gorputzari.

### Bestiengan gehixen baloratzen dozuna?

Faltan dagoen gauza bat: egixa esatia.

### Puntuala zara?

Erloju bat baiño gehixago.

### Nora egingo ziñuke bidaia?

Kubara.

### Poltsikoko telefonorik erabiltzen dozu?

Bai.

### San Martzialera juango zara?

Ezin dot.



**JOXAN**  
**ARRAINDEGIA**



Ibargarai 24  
Tf. 943 76 70 29

**AZPEITXI**

Aranerrek 13 behea ☎ 943 76 55 00

*Jatetxea*

**FRONTOI**



**TABERNA**

Fraskozuri z/g. 943 76 05 09

*izeder*

**ARTE DEKORATIBOKO  
ikastaroak**

943 76 71 05. Arruriaga 2



*Gozogintzan  
aitzindari.*



## Bergara KEko futbol sailak diru gehiago eskatu dio udalari

Egubakoitzean Bergara Kirol Elkartearen batzar orokorra egin zen kultura etxean. Sail bakoitzaren balantzea egin ondoren, zuzendaritzak dirulaguntza handiagoa eskatu zion udalari futbol sailarendako.

Hamar bat lagun izan ziren joan den egubakoitzeko batzarrean eta 'Piti' Unamuno BKEko presidentea eta Julio Mendiartz diruzaina diru kontuen eta kirol lorpenen berri eman zuten. Futbol sailak (22 milioiko aurrekontuarekin) 332.609 pezetako superabita izan du aurten eta pilotakoak, berriz, 404.561 pezetako superabita aurkeztu zuen. Pilota sailak 1.454.913 pezetako aurrekontua izan du amaitu



Julio Mendiartz diruzaina eta 'Piti' Unamuno presidentea.

berri den denboraldian. Saskibaloian eta eskubaloian, aldiz, parekoak izan dira diru sarrerak eta irteerak. Eskubaloian aurrekontua 1.408.675 pezetakoa zen.

2001/02 denboraldiari begira, futbolak 21 milioiko aurrekontua, izango du.

BKEko ordezkarien arabera, defizita hiru milioi ingurukoa izango da, gastuak gora egingo duelako eta kategoría galtzean hainbat laguntza kenduko dituztelako, tartean Espainiako Federazioarena (milioi bat pezetakoa izan zen iaz).

### UDALAREKIN HASERRE

BKEko ordezkariak haserre azaldu ziren udalak kirol taldeei dirulaguntzak banatzeko erabiltzen dituen irizpideengatik. Julio Mendiartzek azaldu zuenez, «azken denboraldian 2.319.749 pezeta eman ziguten, aurrekontuaren %10. Beste hainbat taldek %50-70 bitartean betetzen dute udalaren laguntzarekin». 'Piti' Unamunok adierazi zuen udalak irizpide horiek berriro aztertu beharko lituzkeela, gazteen artean (200 bat fitxarekin) futbolak betetzen duen funtzio soziala ez baita kontuan hartzen. Era berean, zuzendaritzakoak kexu azaldu ziren Agorrosin zaintzeak dakarren kostuarekin eta Ipintzaren egoera txarra-ekin.

## Gazte taldeak agur denboraldiari

BKEko lehen mailako gazte futbol taldeak denboraldi ona egin du aurten eta sailkapenean 13. geratu da (20 talde ziren lehian). Kadete mailatik gazte mailara jauzi egin zuen taldeak denboraldiaren hasieran, eta jokalariai uste baino hobeto moldatu dira kategoría berrian. Datorren denboraldian hainbat jokalaria ohorezko gazte taldera igaroko dira. Argazkian, gazte taldea losu De Vega entrenatzailearekin eta Aitor Eraña delegatuarekin.



## ETXE BERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



## OGIZUN

koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13



## 'Moztu'ri omenaldia uztailaren 6an

**Jose Antonio** Kortabarría "Moztu" zenaren omeneko futbol partidua jokatu da datorren egubakoirtean, uztailak 6, Ipintzako futbol zelaian 19:30ean. Partiduaren atarian, "Moztu"ren lagunek plaka oroigarria eskainiko diote bere familiari eta, aurrekuaren ostean, Amilotxeko beteranoek Bergarako selekzio baten

aurka jokatu dute.

Jose Antonio Kortabarría joan den irailaren 25ean hil zen eta bere lagunek futbol partidu batekin omendu nahi izan dute, urtero Amilotx taldea aurrera ateratzeko lan handia egiten zuen eta "Moztu" k. Partiduaren ostean, partaide guztiek afaria egingo dute San Migel-Pe elkartearen.



Jose Antonio Kortabarría 'Moztu'.

## Kirol taldeekin batzarra

**Astelehenean**, uztailak 2, udalak kirol talde guztiekin batzarra egingo du udaletxean arratsaldeko 8etan. Besteak beste, kirol proiektua, kirol sariak eta hurrengo denboraldirako instalazioen eskaera aztertuko dituzte.

### ANA BELASTEGI / Eskoriatza saskibaloit taldeko jokalaria

## «Esperientzia faltagatik jaitsi gara mailaz»

**Eskoriatzako saskibaloit taldeak denboraldiko jokalaria onenaren saria eman dio Ana Belastegi bergararrari (22 urte, 1,76 m). Eskoriatzako taldea 2. maila nazionaletik liga probintzialera jaitsi da.**

**G.** Pozik, egindako denboraldiarekin?

**E.** Taldeak ezin izan dio bigarren maila nazionalari eutsi eta pena izan da. Jende aldetik nahiko justu ibili gara eta oso talde gaztearekin jokatu behar izan dugu. Azkenean, esperientzia falta erabakigarria izan da mailaz jaisteko.

**G.** Eskoriatzak talde ona izan du beti.

**E.** Bai, udalak eta klubeko presidentek nesken saskibaloitari asko laguntzen diote, ez Bergaran moduan.

**G.** Bergarako hainbat jokalaria ari zarete.

**E.** Maite Usabiaga, Maria Romero eta hirurok ibili gara. Maria ere saritu dute, azken urteotan jokalaria eta entrenatzaile gisa egin duen lanagatik. Bestalde, Jasone Zabala, Olatz Laborda eta Maite Zumarraga gurekin entrenatzen hasi dira.



**G.** Pibot moduan ala hegalean gus-turago?

**E.** Nahiago dut hegalean jokatzeko. Barruan jokatzeko aparte, kanpoko saskiratzeak egiteko aukera dago. Gainera, pibot postuan jokalaria altuenen kontra borrokatu behar duzu eta hori zailagoa da.

**G.** Datorren urtean, zer?

**E.** Kategoria baxuagoan jokatu dugu, baina ilusionatuta gaudela, gazte mailatik ezagutzen ditugun taldeen aurka jokatu dugulako.



**BANKINTER**

**%3,5**etik aurrera lehen 6 hilabeteetan

\*Irekiera  
komisioa:  
%1.  
35 urte  
bitarteko

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren\*

JAUNARTZEAK,  
EZKONTZAK, BATAIOAK,  
KINTOENTZAKO  
BAZKARIAK...



**ZABALA**  
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.

Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

**1929az geroztik zure zerbitzura**




Irizar 2  
943 76 14 95

**JAUJA  
KIROLAK**

**ATARI**

Zure auzo elkarteko, etxebizitza eta garajeko arazoak konpontzeko gertu

Finka administrazioa. Kolegiatu zkia. 574  
Ibargarai 1. Tel. 679 378 192. Faxes 943 76 38 41



**GUREN  
INTURAK**

**Pintatze lanak orokorrean**

Irala kalea z/g  
Tel. eta faxes: 943 76 33 01



# IPINTZAKO

## futbol txapelketa



### Nesken kadete mailako finalerdiak astelehenean

Fashion Fashion taldeak (argazkian) 1-0 irabazi zion martitzenean Antzuolako Jo ta ke-ri; oraingo astelehenean, berriz, kadete mailako finalerdiak jokatu dira. Bestalde, alebin mailako finala jokatzeko zen atzo, eguna, Arloteak eta Sorluzeren artean. Senior mailako nesken ligan Ogizun eta Arloteak berdindurik ditugu lehen postuan. Nagusien mailan hainbat talde final-laurdenetarako sailkatu dira dagoeneko: Osintxu, Fo Fo Fo, Mongatxurak, A Ze Flaxa eta Angiozar. A multzoan, berriz, Bildurbarek Opel Lam eta Altos Pornos dira aurrera egiteko aukera gehien dituztenak eta D multzoan Arloteak izan daiteke sailkatutako bigarren taldea. Beteranoen mailan, Angiozarrek lidertzan segitzen du. Lehenbiziko laurek jokatu dituzte finalerdiak eta oraindik ere talde batek baino gehiagok dauka aurrean sartzeko aukera.

### azken emaitzak

#### NAGUSIAK

A Ze Flaxa Guipuzcoana-Gore	0-0
Angiozar-Matxakategi	2-0
Fo Fo Fo-Getokuak	8-2
Game over-Mongitxurak	3-2

#### BETERANOAK

Bildurbarek Opel Lam-Guipuzcoana	5-5
Arloteak-A Ze Flaxa	3-6
Angiozar-Ezinleike	9-4
Amilotx-Bar Canalejas	3-0

#### NEKAK

Lotsagabeak-Soraluze	0-10
Jo ta ke-Mariaren Lagundia	2-0
Eibartarrak-Fashion Fashion	5-0
Txotx-Elgeta	5-2
Arloteak-Lai Lai Lai	3-1
Arranua-Potzu	1-5
Ogizun-Pentol's Team	6-1
Mariaren Lagundia-Txotx	0-9
Fashion Fashion-Jo ta ke	1-0
Elgeta-Eibartarrak	0-5
Arloteak-Arranua	8-1
Ogizun-Potzu ta zapaburuak	3-0

### partiduak

#### NAGUSIAK

##### Martitzena 3

19:15: Bildurbarek Opel Lam-Killer's

20:30: Los Pepinos-Osintxu

##### Eguaztena 4

19:00: Altos Pornos-Torrekua

20:15: Drink Team-Lacor Arloteak

21:30: La Juve-Tojhu

#### BETERANOAK

##### Eguena 5

19:30: Arloteak-Angiozar

19:30: Amilotx-Guipuzcoana

20:30: Bar Canalejas-A Ze Flaxa

20:30: Bildurbarek Opel Lam-Ezinleike

#### NEKAK

##### Astelehena 2

19:00: Eibartarrak-Elgeta (finalerdia)

20:00: Fashion Fashion-Txotx (finalerdia) eta

Ou Pitxu Ou-Arranua

21:00: Pentol's Team-Potzu eta Ogizun-Arloteak

##### Egubakoitza 6

21:00: Lai Lai Lai-Ou Pitxu Ou

### sailkapenak

#### A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Bildurbarek Opel Lam	9	4	11	3
2. Altos Pornos	9	4	6	3
3. Tojhu	6	4	7	4
4. Torrekua	6	4	7	10
5. Killer's	4	4	7	10
6. La Juve	1	4	8	16

#### B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Osintxu	9	3	14	2
2. Fo Fo Fo	7	4	21	9
3. Txokokuak	7	4	11	6
4. Los Pepinos	3	3	2	13
5. Getokuak	0	4	3	21

#### C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurak	12	4	14	2
2. A Ze Flaxa	7	4	10	3
3. Gore	5	4	6	6
4. Game over	3	4	5	18
5. Mongitxurak	1	4	4	10

#### D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	10	4	11	2
2. Arloteak	6	3	8	2
3. Down	5	4	5	7
4. Matxakategi	4	4	6	6
5. Drink Team	0	3	1	16

#### Beteranoak

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	15	5	37	11
2. Bildurbarek Opel Lam	11	5	30	13
3. A Ze Flaxa	9	5	21	18
4. Amilotx	7	5	12	28
5. Guipuzcoana	5	5	18	20
6. Bar Canalejas	4	5	11	23
7. Ezinleike	3	5	14	23
8. Arloteak	2	5	15	22

#### Neskak, seniorrak

	P	J	GA	GK
1. Ogizun	15	5	35	3
2. Arloteak	15	5	27	4
3. Potzu ta zapaburuak	7	5	15	8
4. Lai Lai Lai	7	5	19	11
5. Pentol's Team	6	5	13	17
6. Arranua	0	5	2	38
7. Ou Pitxu Ou	0	4	1	31


#### Neskak, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Eibartarrak	15	5	38	3
2. Fashion Fashion	10	5	16	10
3. Txotx	9	5	23	13
4. Elgeta	7	5	10	14
5. Jo ta ke	3	5	3	11
6. Mariaren Lagundia	0	5	3	39

#### Neskak, alebinak

	P	J	GA	GK
1. Arloteak	12	4	53	0
2. Soraluze	9	4	43	12
3. Lotsagabeak	6	4	10	15
4. San Martin	3	4	4	46





**ZINEA ETXEAN**  
Tecnologia aurrerakoiena zure esku

# Herran

## SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4

943 76 37 53



## ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3

943 76 12 22

# Konponketa tailerra Garbiketa zerbitzua Erakusketa



**Ciclos i2**  
ACOBIS

ACOBIS taldea: zerbitzu hobea







MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

## bonofotoa

Zein da Goiko auzoko  
baserri honen izena?

## galde debalde

1. Zer lagako dio Santa Marina parrokiak udalari sinatu duten hitzarmenaren arabera?

- A- Oxirondoko aparkalekua
- B- Kataibiako arbola bat
- C- Kataibiako plaza

2. Zeino aurrekontua izango du datorren denboraldian BKEko futbol sailak?

- A- 21 milioi pezeta
- B- 16 milioi pezeta
- C- 11 milioi pezeta

3. Zer izango dugu uztail eta abuztuko eguenetan Espoloian eta San Martin plazan?

- A- Bandaren kontzertuak
- B- Jazza eta antzerkia
- C- Jazza eta zinema



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Laura Basauri**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Laurari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:  
Bonofotoa: **Ariznoa plaza eta Joan XXIII.a plaza**  
Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

### BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Berberana**  
ardo beltz gaztea, 3/4

**269 PTA!**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



## Aurten ere, uztaillean jazzaz, eta abuztuan zineaz gozatzeko aukera izango dugu

'Udako gauak' izenarekin bataiatutako kultura eskaintza gure artean izango dugu aurten ere. Kultura sailak iaz martxan jarritako ekimen horren ondorioz, uztaillean, eguenero, Espaloian jazz kontzertuak entzuteko aukera izango da; eta, abuztuan, eguenero baita ere, zinea, San Martin plazan.

Udako astegunetako gauak bizitzeko asmoz prestatu ditu udalak ekitaldiok. Iaz ekin zion jazz eta zine gauak antolatzeari, eta balorazio oso positiboa egin zuten herritarren artean izandako harreraz; jende ugari hurbildu zen, batez ere, uztaileko jazz emanaldietara.

Uztaileko hilabetearen beraz, eguenero jazz kontzertuak izango dira Espaloian, 22:00etan; lau kontzertu guztira.



Lehenengo kontzertua argazkiko 'Igela Banda' taldeak eskainiko du.

lehenengo kontzertua argazkiko 'Igela Banda' taldeak eskainiko du.

Lehenengoa, datorren egunean, uztailak 5, izango da, eta bertan, 'Igela Banda' ikusi eta entzuteko aukera egongo da. 'Igela Banda' duela bi urte sortu zuten. Hiru kidek osatzen dute taldea. Honako hauek: Bixente Martinez, kitarra eta bouzoukia; Txarli de Pablo,

kontrabaxua eta Iñigo Egia, perkusioa. Euskal doinu tradizionalak abiapuntutzat hartuta, libreagoa den musika du oinarri taldeak, bai inprobisatuz, bai harmonia eta desarroiak aldatuz, baita ezohiko bide eta giroak erabiliz. Saioak ordubete luze iraungo du.

Hurrengo egunean, uztailak 13, 'The Big Jambo-

ree' hurbilduko da Espaloian. Uztailaren 19an 'V.O.S. Quartet' taldea, eta jazz emanaldi zikloa 'Mac Jeara's Band' taldeak itxiko du uztailaren 26an.

### ZINEA SAN MARTIN PLAZAN

Uztailko egunen musikak alaituko baditu, abuztukoak zineak. Izan ere, abuztuko hilabetearen zehar, eguenero, aire librean, film bat ikusteko aukera izango da San Martin plazan gaueko 22:00etan; guztira bost film izango dira.

Abuztuaren 2an 'Gladiator' (gaztelaniaz) eskainiko dute. Abuztuaren 9an 'Pinoxtxo' (euskaraz); abuztuaren 16an 'Murielen ezkontza' (euskaraz); abuztuaren 23an 'Tigre y Dragon' (gaztelaniaz) eta abuztuaren 30ean 'Billy Elliot' (gaztelaniaz).

## Bergarako argazkilariak saritu dituzte Oñatin

**Oñatiko** Aloña-Mendi Kirol Elkarteko mendi taldeak antolatutako I. Argazki lehiaketan, helduen kategorian banatu diren hiru sarieratik lehenengo biak, bi bergararrek lortu dituzte.

Lehenengo saria Joxe Agustin Gurrutxagak jaso du "Aran-tzazuko txabola" lanarekin, eta bigarren saria, berriz, Benito Canterorentzat izan da, "Ipizti basoko erreka" argazkiagatik.

## Orkestra Sinfonikoaren kontzertua San Pedro elizan

**Gaur**, egubakoitza, San Pedro eguna, Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango du, San Pedro parrokian, 20:00etan. Lau obra eskainiko ditu: 'Los esclavos felices', Arriagaren Obertura; '7. sinfonia' Beethovenen allegrettoa; '9. sinfonia', Dvoraken laugarren mugimendua, eta 'The mask of zorro', J. Hornerren soinu banda. Alfredo Gz. Chirlaque arituko da zuzendari.

## ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



## ERRETRATU ZAHARRA

**D**omekan San Martzial Eguna ospatzen dela-eta, aspaldiko bi erretratu utzi dizkigute. Gaur egun izugarrizko jendetza batzen da San Martzialen, baina lehen ere herritar asko eta asko joaten ziren egun-pasa San Martzialera. Goiko erretratua 1933. urtekoa da eta bertan agertzen direnek 22 bat urte izango zituzten. Sasoi hartan, antza denez, ohitura zen mahai-zapia zelaian bota eta han bertan bazkal-tzea. Argazkian ikus daitekeenez, zahatoa ezinbestekoa zen orduan ere San Martzial Egunean... Honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik eskumara:

**Goian:** Martin Gallastegi, Aniceto Muxika, Casimiro Odriozola, Cesareo Unamuno eta Julio Muruamendiarrak.

**Jarrita:** Celestino Osoro, Jose Mari Amuskibar, Hilario Urkizu, Daniel Lete, Sebastian Laskurain, Cecilio Muruamendiarrak, Jose Amenabar eta Serapio Arregi.

*Argazkia: Elena Odriozola*

**B**eheko erretratua 1960an ateratakoa da, eta hor duzue adin ezberdineko lagun talde bat jai giroan. Ezkerretik eskumara:

**Zutik:** ezezaguna, Larrañaga, Gertrudis Arriola, Juan Carlos Verde, Blanca Arriola, Javier Manso, Antonio Fernandez eta Ino Martinez de San Vicente.

**Makurtuta:** Madariaga 'Txikixa', Javier Ena, Jose Antonio Agirrebeña eta Javier Gabilondo.

*Argazkia: Izaro Aperribai.*



## San Martzialen, 1933an eta 1960an



 **Manufacturas LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulak
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.  
Tf. / faxa 943 76 59 53.

 **zumelaga**  
JATETXEA

**58 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

 **MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

*Zuri Beltz margoak*

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma,  
pintura zerbitzu osoa eta moketak

**943 76 14 60**  
**607 447 494**  
**943 76 59 59**

 **Silvestre Muñoz, s.l.**  
**pinturak**

Pintura-lanak orokorrean  
•  
Pintura industrialak  
•  
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82 / 610 25 40 37  
943 76 24 11  
Amillaga 1, 10 pabilioia. 20570 BERGARA

 **DEBA GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
**Teleforo Aranzadi 2 behea**  
**943 76 21 80 / 943 76 06 37**





Irudimena.

ADATS

ILE APAINDEGIA • SOLARIUMA  
Makillajea • Ilerako tratamenduak  
Teknika berriak • Luzapenak keratinarekin  
Matxategi, 7. Bergara. 943 76 49 51



# PASCUAL

## TELEKOMUNIKAZIOAK

Arrasate, 4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.



# Aurrerantzean baita Bergaran ere

Ibargarai, 5.

Tel. 943 76 97 07 - 08 - 09

LASTER ZABALIK

Zatoz, aldatu zure puntuak eta eraman ezazu  
momentuan bertan sakeleko telefono berria.

Zure aholkularia Telekomunikazioeta

Banatzaile ofiziala

*Telefonica*  
**MoviStar**